

B-6099

B-6019

TRADUCTOR/A

ITZULTZAILEA

Ejercicio: 1 Prueba: 2

1.- Aipatu literatura eta pentsamendu obrak euskarara itzultzeko sortu diren bildumak eta adierazi, laburzki, bakoitzaren ezaugarriak.

Pentsamenduaren klasikoak

Klasikoak, S.A. delako sozietateak bultzatutako proiektua (1991).

Mendebaldeko kulturaren oinarrian dauden pentsamendu unibertsaleko obra gailenak zuzenean eta sistematikoki euskaratzea.

Irakaskuntza ertainetan eta unibertsitatean bibliografi oinegiturak daukan ahuleziari aurre egitea.

Testu gehienak oharrez eta bibliografiaz horniturik doaz eta horrek ere, gehitu egiten du itzulpen-balioa, irakaskuntzan erabili ahal izateko. Dozenaerdi bat hizkuntzatan (greko, latin, frantses, ingeles, aleman, italiera, espainol eta abarretan) hogeita hamarren bat itzultzaile trebatu izatea beste hainbeste gainbegiratzailerekin.

Literatura Unibertsala (1989)

EIZIE, Eusko Jaurilaritza eta argitaletxeak.

Auzo-hizkuntzetan sortu eta euskarara itzultitako literatura-lan ederrenez osaturiko liburu-bilduma.

Goi-mailako literatura itzulua.

Literatur lanik onenetako batzuk euskaraz ondo itzultzeko gai den itzultzaile sorta bat edukitzea.

Euskal idazleenganako eragina.

2.- Joannes Leizarragak euskal itzulpengintzaren historian duen lekua: zein du itzulpen-lan nagusia, noiz itzuli zuen, nola, zein testuinguru historikotan.

Iesus Christ gure iaunaren testamentu berria.

1571n

Hizkuntza finkatua eta arautua, arkaikotasuna, letrari atxikia, latinaletasuna.

Nafarroako erreginak agindu zion itzulpena, 1559an erlijio katolikoari uko egin eta kalbinisten erreforma onartu ondoren.

3.- Definitu hiru kontzeptu hauek: hizkuntza gaitasuna, hizkuntza ariketa eta hizkuntza-interferentzia

Hizkuntzaren jakite maila.

Hizkuntzaren erabilpen erreala.

Atzerriko hizkuntzaren, bigarren hizkuntzaren, abiaburu den hizkuntzaren eta lehen hizkuntzaren, ama-hizkuntzaren, helburu den hizkuntzaren arteko borroka, gatazkaren ondorioa, non bata besteari nagusitzen zaion arlo jakin batean eta berez arrotz zaizkion zenbait elementu sarrarazi.

4.- Aldi bereko eta esan osteko interpretazioa: nola egiten dira? Zein dira bakoitzaren ezaugarri nagusia?

Aldi bereko interpretazioa Konferentzietan erabiltzen den interpretazio mota nagusia. Bat-batean egiten da, hizlariak hitz egiten duen bitartean, baliabide teknikoak erabiliz (interpretazio sistema: kabina, mikrofonoak, kontsola eta entzungailuak, bai interpretearentzat bai entzuleentzat ere). Hizlariak dioten guztia edo ia guztia itzultzen da, hizlariaren oso ondotik joanez, beste hizkuntzan errepikatuz bezala. Interpreteak, beraz, ez du ezagutzen hizlariak dioena: entzun eta itzuli egiten du. Beraz, epe laburreko oroimena du laguntzailerik nagusia, interpreteak ezin baitu informazioa oroimenean metatu. Askotan binaka lan egiten da, lan saio luzeetan. Ikusizko itzulpena egin daiteke, hizlariak testu bat irakurtzen badu eta itzultzaileak testuaren kopia baldin badauka. Hiztegi elektronikoaren laguntza erabil daiteke.

Esan osteko interpretazioa hitzaldi laburretan erabil daiteke, baliabide teknikorik ez dagoenean edo erabili ezin denean. Ez da bat-batean egiten, hizlariak hitz egin ondoren baizik: argumentazio osoa entzun eta gero itzulpena eginez, edo argumentazio zatiak entzun ondoren itzulpena eginez. Lehen kasuan, hainbat minutuko jarduna egin daiteke; bigarrean, denbora gutxiagoko jardun laburrak itzultzen dira. Interpreteak bere hitzekin berregiten du hizlariaren mintzaldia, modu sintetikoagoan. Epe ertain eta luzeko oroimena behar denez, notak hartzea komeni da, oroimenari laguntzeko. Baliabide tekniko berezirik gabe egiten da, interpretazio sistemarik gabe. Entzuleek ez dute entzulgailurik behar interpretearen itzulpena entzuteko. Ezin kontsulta daiteke hiztegia, baina interpreteak glosarioak eraman ditzake bere nota koadernoan.

5.- Zuzeneko itzulpena eta zeharkako itzulpena. Zer dira eta noiz erabiltzen dira. Ipini adibide pare bat.

Sorburu Hizkuntzako mezua batzuetan aldaketa morfosintaktiko handirik gabe itzul daiteke Xede Hizkuntzara, bi hizkuntzak pareko samarrak direlako euren egiturari dagokionez eta, beraz, bi hizkuntzek kategoria eta kontzepzio linguistiko berdintsuak dauzkatelako. Kasu horretan, zuzeneko itzulpena egin daiteke. Aldiz, Sorburu Hizkuntza eta Xede Hizkuntza nahiko desberdinak baldin badira, egitura aldetik, morfosintaxi aldetik eta baita lexiko aldetik ere, orduan zuzeneko itzulpena ezin daiteke egin, XHn testu naturala egin nahi bada; kasu horretan, Xede Testuan hiztegi edo sintaxi mailako aldaketak egin behar izaten dira, Xhren usadioetara egokitzeko. Zeharkako itzulpena deitzen zaio.

6.- Maileguak eta kalkoak. Zer dira eta zer alde dago bien artean. Mailegu zaharrak eta mailegu berriak. Eman adibide batzuk.

Mailegua SHtik XHra pasatzen den hitza edo hitz sorta da, egokitzapen fonetiko-ortografikorik gabe edo egokitzapena eginez. XHn baliabide hori ez dagoenean, edo haren ordezkioak balio berbera ez duenean edo SHko hitzak balio berezia hartzen duenean erabiltzen da. Euskaraz, mailegu zaharrak fonetikoki egokituta daude: "eliza", "eremu"... Mailegu berriak, aldiz, ez edo gutxiago: "hardware-a", "futbola".

Bestalde, kalkoa mailegu mota berezi bat da, SHren baliabidea (sintagma osoa) hartzen baita, baina jatorrizko hitzen ordezkio, XHren hitzak erabiliz, jatorrizkoaren osagaiak hitzez hitz itzuliz: "fin de semana --> aste bukaera".

7.- Transposizioa eta modulazioa. Zer dira eta noiz erabiltzen dira. Eman adibide batzuk.

SHtik XHra itzultzean, jatorrizkoaren mezua ezertan ere aldatu gabe, diskurtsoaren kategoria sintaktiko bat beste batez ordezkatea da transposizioa. Batzuk derrigorrez egin behar dira, XHn beste aukerarik ez dagoelako edo SHko kategoria ezin delako erabili: "eclipse solar --> eguzki eklipsea". Kasu honetan jatorrizko adjektiboaren lekuan izena ipini behar da euskaraz. Beste batzuk, aldiz, hautazkoak dira: "Hasta el final de la clase --> klasea bukatu arte". Kasu honetan, jatorrizko dagoen izenaren ordezkio aditza ipini da, baina izena ere joan zitekeen euskaraz: "klasearen bukaerara arte".

Modulazioa, ordea, transposizio mota berezi bat da, mezua bera aldatzen baita, esanahiari eutsi ahal izateko, zeren mezua aldatu gabe hitzez hitz itzultzen bada emaitza okerra baita XHn, edo, besterik gabe, XHn esanahi hori beste era batera edo beste mezuzi batez esaten baita. Adibidez, "faltar a la palabra – hitza jan". Modulazioa ere derrigorrez egin beharrekoa edo hautazkoa izan daiteke; adibidez: "prohibido fumar – ez erre, mésedez" ikusten da askotan, baina arazorik ez dago "erretzea debekatuta dago" esateko. Beraz, hautazkoa da. Baina beste kasu honetan derrigorrez egin behar da: "Es menos fuerte que yo -> nik baino indar gutxiago du / ez da ni bezain indartsua"; izan ere, euskaraz gutxiagotasunezko konparatiborik ezin da egin.

8.- Zer da terminologia bankua? Zeintzuk ezagutzen dituzu? Zer esan dezakezu horiei buruz?

Terminologi bankua hiztegi automatizatua da, hau da informatizatua, ezinbesteko lan-tresna itzultzailearentzat eta eremu bereziko hiztegia erabili behar duen ororentzat. Internet bidez doan kontsulta daiteke. Paperezko produktu itxia ez denez, aukera ematen du barruko informazioa etengabe berritu, osatu eta aberasteko, informatikari esker bestela bildu ezin diren datu-multzak biltegitzen dira.

UZEIk sortutakoa (1987an) ordura arte egindako hiztegi guztietako fitxa terminologikoak bateratuz). Geroztik gaur arte UZEIk egin dituen gainerako hiztegi guztiak ere han integratu dira.

EUSKALTERM Terminologia Banku Publiko bihurtu zen 2001ean, UZEIren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmen baten ondorioz. Banku hau eguneratzeko eta elikatzeko lanak UZEIk egiten ditu, Euskaltzaindiaren arauen arabera eta normalizazio-batzordeetan hartutako erabakien arabera.

9.- Esaldi luze eta korapilatsuez osatuta dauden gaztelaniazko testu administratiboak euskaratzerakoan, zein baliabide erabil daitezke euskal joskeran testuak ulergarriak izan daitezen?

- Esaldi laburragoak egin.
- Testua alferrik puzten duten betelanak kendu, testuak ez du ezer handirik galtzen eta.
- Esaldi pasibo agentedunaren ordean esaldi aktiboak erabili.
- Perpaus-mota ezberdinak erabili mezu bera adierazteko (nominalizazioaren ordean aditza).
- Alferrikako erlatiboak esaldiak saihestu
- Baiezko esaldiak erabili, ezezkoak baino gehiago, zenbaitetan mezua bizkorrago adierazten du eta.
- Aditza aurreratu.

10.- Zer dira itzulpen-memoriak? Zertarako erabil daitezke?

Itzulpen-memoria «aurretik itzulita dauden testuak» datu-base batean gordetzeko aukera ematen duen aplikazioa da. Itzulitako testuak segmentu parekatuta gordetzeko aukera ematen du eta, horrela, bi hizkuntzatan dauden segmentu-pareen datu-basea sor daiteke. Itzulpen-memoriaren aplikazioak eskaintzen duen abantaila nagusia da bilaketak egiteko modua askoz ere arinagoa dela eta askoz ere erabilgarriagoa itzultzaileon eguneroko lanerako. Gainera, berdín-berdinak diren esaldiez gain, antzekoak bilatzeko aukera ere ematen du. Eguneroko jardunean itzuli beharreko esaldi berri bati ekiten diogunean bilaketa azkarra egiten du memorian ea lehendik itzulita dagoen, esaldi hori bera nahiz antzekoren bat. Horrekin batera, hiztegiak kudeatzeko ere tresna indartsuak dauzkate eta datu-basean begiratzen du itzuli beharreko esaldi horretako hitzak edo terminoak azaltzen diren. Bilaketa bikoitz horren emaitzak pantailan azaltzen dizkigu, nahiko azkar, eta erraz kopiatu ditzakegu komeni zaigun lekuan.

Esaldiak ez ezik dokumentu osoak ere azter daitezke. Itzulpen-memoriaren aplikazioak aukera ematen du dokumentu oso bat aztertu eta memorian dagoeneko zenbat dagoen itzulita ikusteko.